

## BERGARAKO 2030 AGENDAREN PLAN ESTRATEGIKO JASANGARRIA ADOSTEKO PROZESUA

### LURRALDE MAHAIAREN 3. BILERA

#### Bertaratutakoen zerrenda:

- Agurtzane Diaz (Deba Garaia Landa Garapen elkarte)
- Lander Urigoitia (Udaltzainburu ordea)
- Dorleta Eguiara (Obra eta zerbitzuen burua)
- Gorka Artola (Alkatea eta Lurralde arloko batzordekidea)
- Joseba Aizpurua (Nekazaritzako Ingeniari Teknikoa)
- Juan Inazio Galdos (Hirigintzako A.O.T.)
- Nerea Egia (Udaleko Ingurumen-technikaria)
- Leire Garmendia (Izadi 21 aholkularitza-taldea)
- Aitor Gonzalez (Izadi 21 aholkularitza-taldea)

Bileraren hasiera-ordua: 14:30.

Udalak kontratatutako aholkularitza-enpresak, akta honekin batera doan aurkezpenaz baliatuz, saioaren helburuak eta egingo den lanketa azaldu dute: “Bergara 2030 egin herrixa” prozesuaren baitan orain arte emandako urratsak azaldu ondoren, orain arteko partaidetza saioetan jasotako ekarpenetan oinarrituz diseinatu berri den Plan Estrategiko jasangarriaren 1.zirriborroa aurkeztu du eta ale bana banatu diete bertaratutakoei.

Saioaren lehen zatian lurralde alderdiei lotutako gaiekin erlazioa duten 5 jarduera programak aztertu eta lantzeko aukera ireki da. Honela, bertaratutakoek jarduera-lerro bakoitzaren baitan jasotako ekintzen inguruko ekarpenak egin eta horien artean eztabaidatzeko aukera izan dute.

Agurtzanek galdetu du ea 1.3.1 ekintza zertan datzan. Leirek azaldu dio aurreko asteko bileretan parte hartutako pertsona batek proposatu zuela. Ondo ulertzen ez denez, ekintza birformulatzea proposatu da.

Dorletak galdetu du ea 1.2.3 ekintzaren baitan jasotako ekarpen batean aipatzen den “bide-indarkeria” zertan datzan. Adierazi zaio trafikoak sortutako indarkeriari egiten diola erreferentzia (biraoak, estresa, etab.).

#### Jarraian, bertaratutakoek euren proposamenak banan bana aurkeztu dituzte:

Landerrek aipatu du zarata neurtzeko eta zarata-kutsadurak sor ditzakeen kalteak zigortzeko ordenantzarik ez dagoela eta, ondorioz, zaila egiten dela herrian kontrola eramatea. Gorkak gaineratu du zarataren inguruko neurri batzuk hartu direla, baina egia dela ordenantzarik ez dagoela.

Bestalde, 30 hiriaren gainean, ekimena martxan egonagatik, berau betearaztea zaila dela adierazi du Landerrek. Eta, horren aurrean, 30 hiria modu eraginkorrean ezarriko bada, bestelako gutxieneko neurriak hartu beharko liriateke: autoak bideetatik kentzea, abiadura murrizteko trabak eta radarra ipintzea, esate baterako.

TAO sistemari dagokionez, Landerrek aipatu du egoiliarren okupazioa aspaldi gainezka eginda dagoela, herriko plaza kopurua hirukoizterainoko parkea suposatzen baitute. Etxebizitza bakoitzeko plaza bakarria ematea edo ordainketa sistema aldatzea proposatu du.

Erdigunea kotxe barik ekimenaren helburuak lortze aldera, goizez itxita edukitzearekin ez dela nahikoa gaineratu du. Erdigunea kotxeari ixtea nahi bada, egun osorako itxi beharko litzatekeela azpimarratu du.

1.2.7 ekintzarekin ados dago, irtenbidea eman behar zaio gune horri, adibidez biribilgune handi bat bertan eraikiz.

1.4.4 ekintzari lotuta, larrialdi-plana berrikusteko beharra dagoela aipatu du, klima-aldaketaren eraginak kontuan hartuz.

Gaur lantzeko lerroa ez den arren, 5. Lerroko 5.2.1 ekintzan udalarekiko komunikazioa errazteko *whatsapp* aplikazioa herritarren eskura jartzea aipatzen da. Landerrek ideia ona dela adierazi du, baina norbaitek kudeatuko badu. Hau da, norbaitek egon behar du horren kargu egiteko.

Ondoren Josebak hartu du hitza. Ingurumenaz eta jasangarritasunaz hitz egiten dela uneoro eta planaren %80a edo gehiago hartzen dutela gai horiek. Leirek erantzun dio HAPOa dela hirigintzarako lotura eragiten duena. Josebak azpimarratu du, berriz, HAPO egoteak ez duela hirigintza jasangarri bat ziurtatzen. Leirek erantzun dio prozesuan zehar egon diren partaidetza gune ezberdinetan hirigintzaz hitz egin dela, baina ezin dela estrategia bera hirigintzan zentralizatu, zein hiri eredu nahi den eztabaidatzen baizik.



Ildo horri jarraituz, Nereak esan du 1.1.3 ekintzaren barnean sartutako ekarpenak ez daudela ondo lotuta HAPOarekin eta hortik kenduko litzatekeela. Agian egungo plangintzak nora eraman gaituen aztertu beharko litzatekeela adierazi du, gero ze norabide hartu zehaztu ahal izateko. Emakumeek edo/eta beste eragileek (haurrak, ...) beren iritzia eman beharko lukete plangintzak hasierako irizpideak zehazteko.

Leirek adierazi dio 1.1 eta 1.2 lerroekin nahikoa dela uste ez badute eta berregituratu beharra dagoela, oraindik garaiz daudela.

Josebak galdetu du ea partaidetza prozesu honetan izen handiko arkitektura enpresek parte hartu duten. Leirek baieztatu du arkitektura enpresen partehartzea eta hauen aldetik hainbat irizpide jaso izana.

Juan Inaziok erdialdeko zenbait gune hilik aurkitzen dituela azpimarratu du eta badutela berpizteko beharra.

Josebak adierazi du agian aurretiko bileretan esandakoak ez dituela ezagutzen eta agian ezjakintasunetik hizketan ari dela. Leirek erantzun dio hainbat irizpide aipatu direla herritarrekin egindako bileretan, tarteko hirigintza jasangarriari dagozkionak. Juan Inaziok aipatu du bera alkate izan zenean, bere herriko biztanleria hazi egin zela eta, horretarako, etxebizitzetako prezioak eraikuntza-enpresekin adostu zutela. Onartzen du Bergarako industria ondo hornitua dagoela.

Leirek azaldu du hausnarketa prozesu batean ari garela, eta agian ekintza pilotu edo eredugarri bat abian jarri beharko litzatekeela herrian erreferente bat ezartzeko.

Nereak aipatu du 2030 Estrategian ezingo duela soilik planak eta azterketak egitea jaso.

Leirek adierazi du, pasatako Planaren zirriborroan agian ez dela argi ikusten, baina erdigunearen birgaitzea sarritan aipatutako kontua dela egindako partaidetza saioetan, eta horrek estrategikoa izan behar duela.

Nereak gehitu du HAPOren deskribapen-fitxan sartu daitezkeela berau osatzeko iraunkortasun irizpideak. Gorkak gaineratu du dagoeneko planean HAPO baldintzatzen duten hainbat ekintza jasota daudela eta hauek HAPO berriaren oinarri eta irizpideak ezartzeko balioko duela.

Gorkak adierazi du helburu estrategikoak oso hurbilekoak direla eta, agian, denboran aurreragoko ekintzak falta direla, 15 urtera edo gehiagora begirakoak. Aitorrek eta Leirek erantzun diote Estrategia, printzipioz, 10 urtera begirakoa dela eta, denbora-ikuspegi horrekin osatu dela.

Gorkak industriaren sustapena faltan botatzen duela adierazi du. Leirek erantzun dio gaur lantzen ari diren lerroak ez duela ekonomia lantzen, baina jasotzen dela Planean. Egindako ekonomia-mahaiko bileran Olarramendiko industria eremuari buelta bat emateko beharra behin baino gehiagotan azaldu dela adierazi du.

Juan Inaziok industria-gune hori berreskuratzea beharrezkoa dela azpimarratu du.

Dorletak aipatu du planean plangintzak garatzea interesgarria dela, alegia, herriko ondarearen eta azpiegituren plangintza garatzea (ur sarea, argiteria, etab.), unean uneko "partxeok" ekiditeko.

Juan Inaziok birgaitzearen garrantzia azpimarratu du eta baita hobarien garrantzia ere (Ondasun Higiezin Zergan, etab.). Azpiegiturak auzoetara eramateko beharra ere adierazi du. Ertzainetako biribilgunea egitea ezinbestea dela ere komentatu du, puntu horri irtenbidea emateko. Udal jabetzako eraikinen erabilera zehazteko beharra gaineratu du.

Agurtzanek adierazi du landa eremuan inbertsioak egitea arazoa dela, oso zaila gertatzen baita behar diren diru kopuru handiak plangintzetan integratzea. Hala ere, bertako bizi-baldintzak errazteko hobekuntzak bultzatu behar direla aipatu du, adibidez, zaharren egoitza birgaitzea edo eredia birformulatzea. Agian Gizarte Zerbitzuetatik beste eredu bat bultzatu behar da, adineko pertsonak bertan "aparkatzeko" lekuaren irudia baztertze eta zahartze duin baterako lekutzat hartzeko.

Nereak 1.1.1 eta 1.1.2 ekintzak kenduko litzuzkeela adierazi du, HAPO hiri eremuari lotuta utziz. Izan ere, landa eremuan Lurralde Antolaketako Artezpideek (gaztelaraz, DOT *-Directrices de Ordenación del*

*Territorio-* eta gaikako Lurralde Plan Sektorialek (gaztelera, PTS *-Planes Territoriales Sectoriales-*) zehazten dute zer egin daitekeen. 1.1.4 ekintza Leticiarekin batera birmoldatzea eskatu du. Espezieen inbentarioa egiteari lotutako kenduko luke (1.3.1 ekintza). Bestetik, 1.3.2 ekintzan paisaian egin diren inpaktuak barneratzea proposatu du, egungo egoera berriaren azterketa bat egitea, azken urteetan izandako aldaketak azalertzeko eta, aurrera begira, eredu hori mantendu edo aldatzeko. 1.3.2 ekintzan hirigintza-eredu iraunkorra barneratuko luke, klima-aldaketari egokitzeko aukera emango diona. 1.3.5 ekintzari lotuta, adierazi du badagoela Kiko Alvarezek egindako proiektu bat. Leirek erantzun dio saio ezberdinetan asko ezberdindu zutela hiri barruko jardueren (bero uharteak, ...) eta landa eremuko jardueren beharra.

Horretaz gain, Nereak gehitu du 1.3.6 ekintzan nekazariak edo abeltzainek paisaiaren kontserbazioan duten papera azpimarratu beharra dagoela.

Aitziberrek adierazi du zuhaitz landaketen inguruan kontuan hartu behar dela landa eremuko pertsonarentzako landaketak jarduera ekonomikoa direla, ez paisaia edertzeko jarduera bat. Halere, azpimarratzen du eukaliptoaren ordeztasun, bertako espeziak landatzeko beharra eta garrantzia ulertarazi behar zaiela landaketak egiten dituzten pertsonen.

Nereak adierazi du 1.4 programak industria barneratu behar duela, islatuta ez baitago. Enpresen arteko hondar beroa aprobetxatzeko neurrien ezarpena eta udalak bere energia kontsumoa murrizteko neurrien inguruko ekintzak gehitu behar direla gaineratu du. 1.5.8 ekintza urbanizazio berrietara ez mugatzea eskatu du eta, horri lotuta, Legazpin egindako ikerketa aipatu du (drainatzeari eta euri urak aprobetxatzeari buruzkoa).

Lurraldea batzordearen bilera 16:30etan amaitu da.